



## **EBAPENA ( 04/2009 Espedientea, BIZKAIKO ODONTOLOGOEN ELKARGOA)**

### **Osoko Bilkura**

Javier Berasategi Torices jauna, lehendakaria

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakari eta txostengilea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 12an.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (aurrerantzean LDEA) Osoko Bilkurak, lehenago adierazitako kidez osaturik eta txostengilea Joseba Andoni Bikandi jauna delarik, honako Ebazpen hau eman du 04/2009 Espedientean eta bertan proposatzen da Bizkaiko Haginaldiaren Elkargo Ofizialari (bere 001/2008 Espedientean LDEZk isilpeko informazioari hasiera eman zitzaionean Bizkaiko Odontologo eta Estomatologoaren Elkargoa zen) zigor-espedientea irekitzeko prozedurari ez ekitea.

### **GERTAKARIAK**

1. Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49. 3 artikuluari jarraituz, 2009ko otsailaren 19an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak LDEZ aurrerantzean) Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari aurkeztu zion "Proposamena Bizkaiko Haginaldiaren Elkargo Ofizialari (isilpeko informazioarako aldia hasi zenean Bizkaiko Odontologo eta Estomatologoaren Elkargoa zen) zigor espedientea ez jartzeko": LDEZren Proposamenean honako jarduerok aipatzen ziren:
2. 2008ko urtarrilaren 18an, LDEZk Ebazpena eman zuen isilpeko informazioari hasiera emateko Bizkaiko Haginaldiaren Elkargo Ofizialari (aurrerantzean Elkargoa) zehapen espedientea ireki eta gero, betiere 2004. eta 2005. urteetako Hortzetako IMQ Planari buruz halako espedientea irekitzea egokia bazen. 2008ko urtarrilaren 17an LDEZk Elkargoari Ebazpena jakinarazi zion.



3. 2008ko urtarrilaren 29an eta Lehia Defendatzeko Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskumenak koordinatzeari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1 artikulua betetze aldera, LDEZk Lehiaren Batzorde Nazionalari (CNC aurrerantzean) ohar labur bat bidali zion aginpidea duen organoak emandako irizpenaz. Ohar horretan azaltzen zen agian aipaturiko jokabidea ordainsari-baremoei dagokienez izan zitekeela Elkargoak prezioak ezarri zituela eta jokabide horrek ez duela legearen babesik baldin eta horren arabera orientagarriak diren ordainsariak derrigorrezkoak bihurtzen badira. Halaber adierazten zen LDEZk eskumena zuela kasuaz arduratzeko eta horri buruz CNCK bere adostasuna eman zuen.
4. 2005. urtetik aurrera IMQk merkatuan jarri nahi zuen Hortzetako Planari dagokionez Elkargoak izandako jokabideek bere zergatia dute ADEBIK (Bizkaiko Hortzetako Elkarteak) Elkargoaren beraren aurrean jarritako salaketa batean. Salaketa horretan eskatzen zen aipaturiko plana geldiarazteko uste baitzuen lanbiderako kaltegarria zela eta irregulartasun batzuk zituela.

ADEBIren ustez IMQk profesionalekin sinatu nahi zituen kontratuek berauei eskatuko zieten kostuarenak baino prezio txikiagotan IMQren aseguratuei mediku zerbitzuak emateko eta gainera frankizia batzuk ezarriko ziren, zerbitzua eman zezan profesionalak bere gain hartuko zituenak. Gainera adierazi ADEBIk adierazi zuen IMQren Hortzetako Polizak antza denez Aseguruaren Legeko baldintzak ez zituela betetzen.

5. Aurkeztutako salaketa ikusirik, Elkargoak hainbat jarduera ipini zuen martxan eta bere elkargokideei Planari buruzko argibideak eman zizkien eta Planari buruz ezohiko batzar orokor monografikora joateko deia egin zuen. Halaber, IMQk berak Elkargoari eginiko kontsultaren ondoren, 2004ko urtarrilaren 21ean adierazi zion Planaren ildoetako buruzko informazioaren jabe zegoela eta hiru jarraibide ipini zien:
  - a) Gobernu Batzarrak onartutako ordainsari orientagarriak betetzea.
  - b) Bere planteamenduak Bizkaiko edozein kideri irekitzeko baldin eta berau interesaturik balego.
  - c) Planetik espezialitate eta espezialista hitzak kentzea.

2004ko urtarrilaren 29ko oharrean Elkargoak adierazi zuen lanbidearentzat kaltegarriak direla artekaritzako hortz-produktu guztiak. Eta laguntza eskatu zuen halako produktuak martxan ipintzea galarazteko elkargo guztiari kalte egiten omen baitiote.

2004ko otsailaren 2ko oharrean Elkargoak adierazi zuen Hortzetako Planari dagokionez, gauza berrien artean aipagarriena dela osasun-asistentziako polizetan IMQk duen aseguratu-zorroarentzat (baremoko ordainketa) nahiz ez aseguratuarentzat (ordainketa atzikorra) zehazten dutela profesionalarentzako ordainsaria. Gainera adierazi zuen informazio guztia aztertuko zuela nolabait izan daitezkeen jarduerak bideratu eta konponbideak bilatzearen.

Otsailaren 18an ezohiko batzar nagusira 127 elkargokide joan ziren. Batzar



horretan sinadurak bildu ziren Elkargoak IMQri bidali beharreko idazki bat berresteko helburuz. Idazki horretan honako hau adierazten zen:

- a) IMQren Hortzetako Planaren erabat aurka zegoela Elkargoa eta Planaren berri jaso zutelako haren jabe zeudela eta aurrerantzean gai horri buruz bilera gehiago ez zutela egin nahi.
  - b) Produktua artekaritzakoa zela eta ez aseguramendukoa eta, aseguramendukoa zela IMQk merkatuan ipini behar zuena.
  - c) Bizkaian IMQ sendo finkaturik dagoela eta, bere koadro medikuan sarrera eman beharko litzaioke Bizkaiko edozein elkargokideri baldin eta beronek nahiko balu.
  - d) Plana aurrerantz joan ez zedin edozein jarduera burutuko zela bai auzi bidera joz nahiz bestelako bide bat hartuz.
6. 2004ko abenduaren 15ean Lehiaren Defentsarako Zuzendaritza Nagusian (gaur egun ez dago desagertu delako) sartu zen Lehiaren Defentsarako Auzitegitik (auzitegi hori ere gaur egun ez dago) zetorren dokumentu bat, jakin zezan Elkargoak bidalitakoa. Dokumentu horrek bi idazki zuen eta lehenengoa ADEBIko Elkargoaren aurrean aurkeztutako idazkia zen eta bertan eskatzen zen egoeraren berri emateko honako hauei: Lehiaren Defentsarako Auzitegia, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osasun Ministerioa, Aseguruen eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusia eta Odontologo eta Estomatologoen Kontseilu Orokorra.
- Bigarren idazkian Elkargoak ADEBIri emandako erantzuna ageri da. Erantzun horretan adierazten da IMQri adierazi diola Planaren aurka dagoela baina elkargokideen artean sentsibilitate desberdinak zeudela eta Elkargoak ezin zuela behartu nahi ez duenak kontratu bat sinatzera.
- Gainera adierazten zuen elkargokideen artean kontradikzioak zeudela, izan ere batzuek Plana geldiarateko eskatzen bazuten ere, bertan parte hartzen zuten.
- Bukatzeko esaten zuen Elkargoak ez zuela eragozpenik ADEBIren idazkia erakundeei bidaltzeko baina jardutekotan bakarrik bitarteko-igorle gisa egingo duela.
7. 2005eko azaroaren 28an Lehiaren Defentsarako zuzendari nagusi andreak erabaki zuen Elkargoak eta ADEBIk aurkeztutako salaketa artxibatzea uste zuelako jokabideek ez zutela Lehiaren Defendatzeko Legea hautsi.
8. IMQren hortzetako Plan 2005eko urtarriletik aurrera merkatuan hasi zen ipintzen.
9. LDEZaren Osoko Bilkurak 2009ko maiatzaren 28ko bileran espediente hau eztabaidatu eta epaia eman zuen.



## 10. Hauexek dira Ebazpen honen

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

11. Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (LDL aurrerantzean) 49.3 artikulua ezartzen duenez, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta (gure kasuan, *Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua, Legearen zortzigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorriz*), Lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitze aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatze aukera, Legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.
12. LDEZk adierazten du espedientean azaltzen diren agirien artean daudela Elkargoak IMQri bidalitako jarraibideak, Hortzetako Planari buruz zein iritzi zuen eskatu zionean bidalitakoak, hain zuzen, eta horien artean dago Gobernu Batzarrak onartutako ordainsari orientagarriak betetzekoa.

Elkargoak baremo orientagarriak ezartzeari dagokionez, hasiera batean esan genezake halakoek badutela LDLren 4. artikulua aurreikusitako lege-salbuespena, izan ere, Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak, bere 5. artikuluko ñ hizkiak, nahiz Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 24. artikulua lanbide-elkargoen eginkizunen artean aipatzen dute zerbitzu-sarientzako baremo orientagarriak ezartzekoa.

Idazkera hau Lurzoruaren eta lanbide-elkargoen alorretan neurri liberalizatzaileetako apirilaren 14ko 3/1997 Legeak sartutako aldaketaren ondorioa da. Lege horren arabera oro har aitortzen zen elkargodun lanbideak lehia askearen erregimenaren eraginpean daudela eta lanbide-elkargoei kentzen zaie gutxieneko zerbitzu-sariak ezartzeko zuten ahalmena, egia bada ere ordainsari-baremo orientagarriak ezartzeko aukera aipatzen bada ere.

Alabaina, ordainsari orientagarriak ezartzeak azkenean prezioak ezartzearen antzeko ondorioak dauzka (Lehiaren Defentsarako Auzitegiak –gaur egun Lehiaren Batzorde Nazionalak– 1992. urtean lanbideei buruz egin zuen txostenean halaxe adierazi zuen) eta profesionalak aske prezioak ezar ditzaten benetako murrizketak dira eta, ondorioz, benetako lehiarik gabeko merkatuak sortzen dituzte.

Egia bada ere litekeena dela ulertzea Legeak sartutako salbuespena hasiera batean aldi baterako sartu zela nolabait gutxieneko zerbitzu-sariak kendu ondoren kontsumitzaileak zerbitzu-sariei buruz orientabideak eduki zitzaizkion, gaur egun argudio hori ezin da inola ere defendatu, izan ere, kontsumitzailea babesteko egon



badaudelako (aurrekontua aurkeztu beharra, publizitate askatasuna...) lehia askerako bestelako bideak, kargarik ez daukatenak.

13. Europak Batzordeak Espainiako Gobernuko ministerioei gutun ugari bidali die bere zalantzak adieraziz lanbide-elkargoek ordainsari orientagarriak ipintzeko garaian ustez duten gaitasunari buruz. Gutun horien artean, besteak beste, aipatzen zen Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) CIF kasuan emandako epaia (2003ko azaroaren 9ko epaia, C-198/01 gaia, Kontsortzio Industrie Fiammiferi, CIF) eta adierazten zen lehiaren aginpide nazionalak behartuta daudela edozein neurri edo araudi nazional ez betetzera baldin eta horrek ezartzen badu EBlren 81. artikuluaen aurkako jokabide bat, edo jokabide horren laguntzailea bada edo jokabide horren eraginetarako legitimazio edo indartzailea bada. Beraz, eta epaiaren arabera, lanbide-elkargoek ordainsari orientagarriak ezartzeko gaitasuna ematen dieten arauak ez lirateke aplikagarriak izango.

Norabide honetan lehiaren defentsarako aginpideak gomendioak egiten ari dira lanbide-elkargoen estatutuetan ordainsari orientagarrien ezartzeari uzteko helburuz. Horrela, 2008ko irailean Lehiaren Batzorde Nazionalak argitaratu du bere txostena, "Zerbitzu Profesionalen eta Lanbide-Elkargoen Alorrari buruzko Txostena" izenekoa. Txosten horretan berresten du kontsumitzaileak defendatzeko helburu orokorrak lortze aldera justifikatu gabeko erregulazioak kentzearen alde eginiko gomendioa, eta erregulazio horien artean elkargo profesionalak ezarritako ordainsari-baremo orientagarriak egongo ziren.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, bere aldetik, Bizkaia eta Gipuzkoako 4/08 espedientearen Ebazpenean ateratzen duen ondorioa da elkargoen ordainsari orientagarriei buruzko arauak berez daramatzatela LDLren 1. artikulua hautsi lezaketean gomendio kolektiboak eta jokabide horiek ez dutela Profesionalen Elkargoek buruzko Legearen babesa aurkitzen eta, litekeena dela LDLren 4. artikuluan aurreikusitako salbuespenetik kanpo geratzea, izan ere, legez ezarritako jokabideak ez dira.

14. Bizkaia eta Gipuzkoako Higiezinaren Jabetzako Agenteen 4/08 espedientearen Ebazpenean Lehiaren Defentsarako Auzitegiak Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eskatzen dio jarduera zehatz batzuk burutu ditzan eta horien artean dago aipaturiko Ebazpenaren berri Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-elkargo guztiei ematea eta 6 hileko epea ematen die nor bere borondatez indargabetu ditzaten prezioei buruzko gomendio kolektibo baliokideak diren ordainsari-baremo orientagarriak. Behin epea amaitu eta gero, esandakoa bete ez duten elkargoek dagokion zehapen-espedientea ireki beharko dio LDEZk LDLko 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoa hautsi izanagatik.
15. LDEAk uste du LDEZk eginiko proposamena bat egokia dela oraingo une honetan, izan ere, oraingo honetan prozedura bat irekita dago Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen arabera Euskadiko lanbide-elkargoen estatutuak eraberritzeko.



## **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.-** Berrestea Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Auzitegi honi aurkeztutako Proposamena. Proposamena da espedientea ez irekitzeko eta 001/2008 zenbakiaz LDEZk Bizkaiko Haginaldiaren Elkargo Ofizialari (isilpeko informaziorako aldia hasi zenean Bizkaiko Odontologo eta Estomatologoek Elkargoa zen) ireki zion espedientea artxibatzea oraingo honetan prozedura bat irekita dagoelako Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen arabera Euskadiko lanbide-elkargoen estatutuak eraberritzeko.

**BIGARRENA.-** Buruturiko jarduerak ez dira ipini behar LDEZren 012/2007 (Bizkaiko eta Gipuzkoako Higiezinaren Jabetzako Agenteen Elkargoei buruzkoa) espedientearen azpian, izan ere, zehapen espedientea ez irekitzeko LDEZk aurkeztu duen Proposamenak bere laugarren zuzenbideko oinarrian adierazten duen bezala, LDEAren 4/08 Ebazpenean LDEAk Zerbitzuari eskatzen zion EAEko lanbide-elkargo guztiei jakinarazteko Lehia Defendatzeko Legearen arabera egokitu behar zituztela beren estatutuak, egokitzapen hori egiteko sei hileko epea ematen ziela.

Ebazpen hau jakinarazi bekio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (LDEZ) arduradunari. Halaber Ebazpenaren berri eman bekio alderdi interesdunari adieraziz bide administratiboari amaiera eman diola eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren (TSJPV-EAEAN) Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean bi hilabeteko epean, Ebazpena jakinarazten denetik aurrera kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 12a

**LEHENDAKARIA**  
**JAVIER BERASATEGI TORICES**

**LEHENDAKARIORDEA**  
**JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA**

**KIDEA**  
**JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE**

**IDAZKARIA**  
**JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI**